



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, XEDE DUENA IRUÑEKO UDALAREN LGTBI+ UDAL KONTSEILUA SORTZEAK UKITZEN AHAL DITUEN HERRITARREN ETA ORDEZKARITZA- ERAKUNDEEN IRITZIA JASOTZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikulua xedatzen duenez, Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Administrazio eskudunaren webgunearen bidez, zeinean jasoko baita zer iritziz duten etorkizuneko arauak ukitzen ahal dituen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egoten ahal diren konponbide alternatibo erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Dokumentu honen xedea da galdera horiei erantzutea eta Iruñeko Udalaren LGTBI+ Udak Kontseilua sortu aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izaten ahal direnek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2024ko apirilaren 8an onetsi eta Udalbatzak 2024ko apirilaren 11ko Osoko Bilkuran berretsi zuen ‘Sexu- eta genero-aniztasunaren eta LGTBI+ berdintasunaren I. Udak Planak’ honako helburu orokor hau ezartzen du Gobernantza, gaikuntza eta zeharkakotasunaren esparruan: *“Udal-administrazio inklusiboa bultzatzea eta bermatzea, Iruñeko herritarren eta LGTBI+ biztanleen sexu-aniztasunaren beharrak eta interesak jaso eta horiei erantzuteko.”* Zehatzago, berariazko 5. helburuak adierazten du *“beharrezkoa dela”* *“pertsonek eta kolektiboen partaidetza sustatzea LGTBI+ politika publikoak antolatzeko”*, eta 15. ekintzan ezartzen du *“LGTBI+ Udak Kontseilua sortzea, LGTBI+ pertsonen eta entitateen parte hartzeko organo gisa, ordezkaritza parekidearen irizpideak ezarrita”*.

Era berean, Planak berak ezartzen du planaren jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratuko den organoetako bat LGTBI+ Udak Kontseilua izanen dela, Planaren jarraipen, ebaluazio eta zeharkakotasun eginkizunekin, dimentsio politiko, tekniko eta sozialean.



b) Onestea beharrezko eta egoki den.

Giza eskubideak gizaki orori dagozkion eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialak dira, inor bereizten ez delarik nazionalitate, bizitoki, sexu, sexu-orientazio, sexu-zein- genero-identitate, sorterre nazional edo etniko, erlijio, hizkuntza eta abar dela kausa. Eskubide horiek unibertsalak, besterenezinak, interdependenteak, zatiezinak, berdinak eta ez-diskriminatzaileak dira.

Abiapuntu horretatik, Iruñeko Udalak konpromisoa ezartzen du lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI+) eskubideak garatu eta bermatzeko, diskriminazio- eta indarkeria-egoerak saihesteko eta sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia zeharka aintzat hartzen dituzten politika publikoak sustatzeko.

Iruñeko Udalak, aniztasun sexuala eta afektiboa askatasun osoz bizitzeko hiria eraikitzen jarraitzeko asmoz, Sexu- eta genero-aniztasunaren eta LGTBI+ berdintasunaren I. Udal Plana onetsi du, 4 urteko iraupena (2024-2028) izanen duen dokumentu estrategikoa, zeinak ezartzen dituen LGTBI+ herritarren eskubideen arloko udal-ekintza eta sexu-aniztasunaren aitortza Iruñean.

Nafarroan arlo honetan udal mailan garatzen den lehen ekintza plan estrategikoa da, 8/2017 Foru Legeak Toki Administrazioei ematen dien erantzukizun publikoa bere gain hartuz, sexu- eta genero-aniztasuna aitortzen eta sustatzen duten eta LGTBI+ pertsonen benetako berdintasuna eta eskubideak bermatzen dituzten politika publikoak gara ditzaten. Era berean, jaso egiten ditu trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arau-aginduak.

Illo horretan, Planak politika publiko horiek garatzeko oinarriak ezartzen ditu, eta Iruñeko Udalaren zeharkako ekintza-tresna sistematiko nagusia da sexu- eta genero-aniztasuna sustatzeko, LGTBI+ pertsonen berdintasuna eta eskubideak bultzatzeko, hirian gizarte-sentsibilizazioa bultzatzeko eta diskriminazio, desberdinkeria eta indarkeria LGTBifobiko mota oro desagerrarazteko, plan hori ezartzeko eta ebaluatzeko behar diren egitura eta organoak ezarrita, eta horretarako, LGTBI+ Udal Kontseilua funtsezko organoa da.

c) Arauaren helburuak.

- Iruñeko Udalaren LGTBI+ Udal Kontseilua sortzea
- Helburua eta izaera ezartzea
- Iruñean LGTBI pertsonen berdintasun sozialaren alde lan egiten duten herritarrek eta erakunderik ordezkagarrienek parte hartzeko mekanismoak artikulatzea.



- Udalaren LGTBI+ Udal Kontseiluaren funtzioak zehaztea.
- Udalaren LGTBI+ Udal Kontseiluaren osaketa ezartzea.
- Antolamendu- eta funtzionamendu-araubidea ezartzea.
- Kontseilukideak hautatzeko, zein epetarako hautatzen diren, horiek kargugabetzeko eta kideek uko egiteko prozedura ezartzea.

d) Egoten ahal diren konponbide alternatibo erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Ez da aurreikusten ordezeko konponbide erregulatzailearik eta ez-erregulatzailearik.

PARTE HARTZEKO EPEA

2024ko irailaren 24tik 2024ko urriaren 7ra.

EKARPENAK BIDALTZEKO

igualdad@pamplona.es